

Eta hauetaz gain, iaz ondoko proposamenak aurkeztu genituen, erantzunik gabe geratu zirenak:

1. Gaizki aparkatutako kotxeei isuna jarri. Piboteak kendu, ez dira beharrezkoak legea betetzeko.
2. Floria auzoko aldapan eskailerak edo arrapala mekanikoa jarri.
3. "Eskolara Oinez" proiektuari (jada "Tipi-tapa igoz aldapa") laguntza eman. Zertan lagundu?
4. Aparkaleku gehiago jarri.
5. Joseba jatetxearen ondoan (Floria-lkastolako bidegurutzean) zebrabidea ipini.
6. Autobusa (Ipintza, baserritarrentzat, industrialdera...), Lurraldebus ezagutzera eman eta lotura gehiago jarri beste herriekin. Ordutegi zabalagoa: "aislatuta" gaude!
7. Oinez ibiltzearen eta garraio publikoaren aldeko kanpainak egin.
8. Txalonerrekan espaloiak egin.



Eskolako Agenda Azkoitia 21

Azkoitiako Eskolako Agenda 21 programak 9 urte bete ditu jada. Herriko ikastetxeetan, 2003an energiaren gaia aztertzen hasi ginenetik, ugariak izan dira gure ingurumenaren ezagutza handitzeko emandako urratsak: hondakinak, kontsumoa, ura, biodibertsitatea, elikadura eta osasuna, mugikortasuna eta garraioa...

Aurtengo ikasturtean, iazko gaiarekin jarraitu dugu, **MUGIKORTASUNA eta GARRAIOA**, baina garrantzi gehiago emanez **OSASUNARI**.

Herriko bi ikastetxe aritu gara proiektu hau aurrera eramanez: Floreagako San Jose ikastetxea eta Xabier Munibe DBHko Ikastola. Guztira 938 ikasle. Eta zenbaki hauei gure irakasleagoa eta familiak gehitu behar ditugu. Benetan, herritar kopuru handia gure ingurumenaren alde esfortzu handia egiten!

Mugikortasuna, garraioa eta osasuna

2011-2012 IKASTURTEA



Hau da ikasturte honetan guztion artean burututako lanaren laburpena. Eskerrik asko proiektua garatzeko laguntza eman diguzuen guztioi eta gure iritzia plazaratzeko emandako aukeragatik.



HH eta LH

Gelan eta kalean egin ditugun ekintzen bidez, mugikortasuna, garraioa eta osasunaren inguruko alderdi ugari aztertu ditugu. Baita gauza asko ikasi ere!

ZARATA eta SOINUA

HH-koek Bide Hezkuntzako programaren barruan, herritik zehar ibili gara. Eskolara nola joaten garen aztertu eta oinez joateko aurkitzen ditugun oztopoak ezagutu ditugu. Ikastetxe inguruan ibili gara soinuak sailkatuz: gustukoak eta desatseginak.

SOINUA eta ZARATA, GAUZA BERDINA AL DIRA?

LH-ko 1. zikloan “zarata eta soinua” bereizten ikasi dugu, bide batez gure inguruan ohikoenak zein diren eta non ematen diren aztertuz. Zarata maila ezberdinak lantzeko “zarataren metroa” horma-irudia egin dugu. Marrazkien bidez kalte eta intentsitatearen arabera zarata eragiten duten ekintzak ezagutu eta kokatu ditugu. Sonometroa erabiltzen ikasi dugu. Gure inguruan zarata daukagula konturatu gara eta askotan dezibelio gehiegi entzuten ditugula.

GURE BIZITOKIAREN KALITATEA

2. zikloan herri osasuntsu baten ezaugarriak ezagutu ditugu eta ondoren gure inguruko arazoak identifikatu; zarata, trafikoa, airearen kutsadura... Gure gizartea zaratsua dela ezin uka genezake; baina beti horrela izan al da? Aiton-amonei galdetegi bat egin diegu zarataren inguruan eta beti ez dela horrela izan konturatu gara.

Bestalde, udaltzainen lana gertutik ezagutu dugu. Leirekin herriko egoera aztertu dugu eta jendearen portaeraren inguruan solasaldi bat izan dugu.

HERRIAN, ADI BELARRIAK!

3. zikloko ikasleak kalera atera gara informazioa jasotzera, herritarrek zeresan handia baitute gai honen inguruan. Kalean neurketa kuantitatiboak egin ditugu sonometroak erabiliz eta herriko mapa akustikoa osatu dugu.

“Eskolara oinez” proiektuaren slogan lehiaketa egin dugu eta irabazlea: “Tipi-tapa igoz aldapa” izan da. laz asmatutako logoari gehitu diogu eta abestia asmatu eta grabatu dugu.



LORTUTAKO EMAITZA OROKORRAK:

- Hiria baino lasaiegoa da baina toki batzuetan eta une berezi batzuetan gehiegizko zarata egoten da (motorrak). Aztertu ditugun puntuen artean %80a lasaia da eta %20 zaratsua.
- Herriko puntu zaratsuenak: Kale Nagusia, Plaza eta Plaza Berri gauetan. Baita Floreagako aldapa, umeen parkeak eta Alzibarreko errotonda.
- Eskolarako bidean, Atrasku taberna parean oso arriskutsua dago pasatzeko. Kotxeak ez dute ikusten zein datorren oinez eta azkar etortzen badira....
- Txikienen artean alergia kasu dezente aurkitu ditugu, handienen artean eragina txikitzen da.



DBH

Aire kutsadurak, trafikoaren zarata, arnasketa arazoak, alergiak... gure osasunean eragiten dituzten kalteak aztertu ditugu. Galdera multzo bat bete dugu eta kutsaduraren ondorioz arnasketa arazo asko daudela ohartu gara.



TRAFIKOAK eta ZARATAK, BA AL DUTE ZERIKUSIRIK?

DBH 1eko taldeek "trafikoa eta zarata"-ren arteko erlazioa landu dugu. Gainera, zarataren maila ezberdinek osasunean sortu ditzaketen kalteak ezagutu ditugu. Herriko puntu ezberdinen zarata neurtu dugu sonometroekin. Ikastetxean ere neurketak egin ditugu leku eta momentu zaratatsuenak identifikatuz: jangela, patioak, sarrera/irteerak, txirrina...



KUTSATZEN GAITUZTEN KEEK

DBH 2ko ikasleek trafikoak sortutako keak osasunean duen eragina aztertu dugu. Toki ezberdinetan (garageetan, errepideetan...) laginak jaso ditugu eta mikroskopikoan aztertu. Xurgagailuarekin gure etxeetara heltzen den airearen kutsadura "neurtu" dugu eta bukatzeko, gure mailan allergien eragina ezagutu dugu inkesta bat betez.




TRAFIKOA eta OSASUN ARAZOAK

DBH 3koek kalera atera gara azkoitiarron iritzia inkesta baten bitartez jasotzeko zaradari, osasun arazoei eta trafiko arriskuei buruz. FEATECE elkarteko kideekin izan gara. Hauek istripuen ondorioz paraplejiko geratutakoak dira eta beraiekin garraioa eta mugikortasunaren arauak errespetatzearen garrantziaz aritu gara.

ESPazio PUBLIKOAREN AZTERKETA

DBH 4koek Azkoitiko espazio publikoak aztertu ditugu bere egoeraren "kalitatea" baloratzeko. Bi ikastetxeen artean herriko kaleak banatu eta jasotako datuak Google Docs-en bolkatu ditugu. Google-en ere mapa bat osatu dugu.



LORTUTAKO EMAITZA OROKORRAK:

- Zarata handiena sortzen dutenak: kaleko obrak, trafikoak eta gauetan tabernetako musika.
- Eskola barruko zarataren inguruan ikasleei ez digula molestatzen konturatu gara, irakasleei bai ordea!
- Aire kutsadura neurtzeko bi froga egin ditugu. Bat etxeko xurgagailuarekin, muturrean gasa bat jarriz eta 5 minutuz leihoan mantenduz. Bestea herriko puntu desberdinetan plastiko itsasgarriko zerrenda batzuk itsatsi ditugu ikusten ez den kutsadura aztertzeko. Trafiko gehien dagoen unetan (Julio Urkijo, Altzibar) aire kutsadura handiagoa neurtu da.
- Trafikoari dagokionean, herritarren artean dagoen kezkarik handiena istripuen inguruan dago. Adibidez, musika eskolatik elkargunera dagoen pasoa oso arriskutsua da.
- Herria ez dago elbarrituentzat egokituia eta guk geuk ere ez dugu herria zaintzen, hau da, ez ditugu dauzkagun gauzak errespetatzen eta ondorioz, puskatu egiten ditugu.
- Aizkibel kaleko arazo nabarmenena bisibilitate onik ez duela da. Kale askotan ez dago aparkalekurik eta ondorioz jendeak espaloietan aparkatzen du. Honek, elbarrituen eta haurren kotxeak ezin pasatzea dakar. Kale ugari errepidea puskatuta edo pitzatuta dute eta espaloiak ere ez daude egoera onean.
- Espaloi batetik bestera pasatzerakoan, ranpa txikiak kokka batekin bukatzen eta hasten dira. Kokka hauek elbarrituentzat eragozpen handiak dira.
- Kaleak orokorrean lasaiak dira eta hau, herriko lasterbideak eragiten du.



NEURKETA	Zenbat dezibelio?	
	MAX	MIN
NON?	40 db	21 db
Gelan isilik eta leihoak itxita	55 db	22 db
Gelan isilik eta leihoak irekita	70 db	45 db
Gelan lanean	85 db	70 db
Gelan hitz egiten	72 db	69 db
Gelan radiokaseta entzuten	70 db	30 db
Gelan irakaslearen azalpenak entzuten	95 db	85 db
Patio berdean	78 db	67 db
Goiko patioan	64 db	60 db
	91 db	70 db



Ikasleen arteko FOROA

Apirilaren 26an, bi ikastetxeetako ikasle ordezkariak Elkarguneko gela batean bildu ginen, ikasturtean zehar egindako lanak bata besteari kontatu eta proposamenak bateratzeko asmoz. Guk ere hainbat konpromiso hartu ditugu:

GU GEUK HARTU DITUGUN KONPROMISOAK:

1. Bizikletaz edo oinez joan gertuko lekuetara.
2. Zebrabideak eta kaleko arauak errespetatu.
3. Autoa gutxiago erabili eta gurasoak horretara bultzatu. Garraio publikoa erabili.
4. Autoen ihes-hodiak ondo mantendu. Motorretan isilgailua ez kendu.
5. Etxean ordu batetik aurrera tresna zaratsua, instrumentuak eta abar ez erabili
6. Telebista eta musika baxuago jarri, leihoak itxi.
7. Baxuago hitz egin.
8. Tabernetako ateak itxi.
9. Gelan ixilago ibiltzea.

ESKOLAK HARTU DITUEN KONPROMISOAK:

1. "Tipi-tapa igoz aldapa" moduko proiektuetan parte hartu.
2. Atsedendietan patioan "zarata" gutxitu.
3. Trafiko zarata sarrera-irteeretan gutxitu.
4. Ikastetxera doazen kotxe kopurua murriztu.
5. Ikastetxera oinez doazenen kopurua handitu.
6. Ikastolako txirrina aldatzen saiatuko gara eta bere orde, musika jarri.



UDAL Entzunaldia

UDALERA ZUZENDURIKO PROPOSAMENAK.

Maiatzaren 22, Udal Entzunaldian, ikasturtean zehar egindako azterketetan oinarrituta eta guztion artean bateratutako proposamenak Udalean aurketu genituen. Ondokoak dira:

Oinezkoen mugikortasunaren inguruan:

- Espaloietako arrapalen bukaerako koxkak kentzea.
- Hainbat lekuetan zebrabidea jarri. Adibidez: Mekoleta Handin. Atrasku parean leku oso arriskutsua denez, zebrabidea oinezkoentzat eta Stop bat autoentzat. Musika Eskola eta Elkarguneko sarreraren artean ere bai.
- Kale Nagusia oinezkoentzat jarri.

Bizikleten inguruan:

- Bizikleten erabilera sustatu. Horretarako, herri barruan bidegorri gehiago egitea beharrezkoa dela iruditzen zaigu, adibidez, jada dauden bi zatiak elkartuz.
- Aparkaleku gehiago ipini, eta ahal balitz, estaliak.
- Bizikletak alokatzeko sistema martxan jarri.

Eskolako bidea:

- Udaltzainak ez dira beti egon behar diren lekuan egoten. Beraien presentzia ziurtatzea nahiko genuke. Bastarrikaldetik datozenak adibidez ez dute udaltzainik.

Garraioa eta zirkulazioa:

- Garraio publikoa indartu.
- Lantokietara joateko kotxeak konpartitzeko sistema bultzatu (agian posible da udaletxeko webetik egitea, beste udaletxe batzuk egiten duten bezala).

- Araudia bete arazi: debekatu autoei espaloietan aparkatzea, kontrolatu motor trukatuaren "zarata", identifikatu herri barruan azkar ibiltzen diren autoak...
- Auto elektrikoaren erabilera bultzatu.

Zarata:

- Tabernetako eta lokaletako zarata kontrolatu, neurtu eta murrizteko neurriak hartu.

